

ZER DA?

Herriaren erdigunean kokatuta dago, Erretiratuen Elkartetik eta Kontsultategi Medikotik hurbil. Eraikuntza eskuragarri bat da, muga arkitektonikorik gabea.

Zonaldean bizi diren adineko pertsonen beharraz arduratzea du helburu, hurbiltasunez eta malgutasunez, zainketa mota anitz eta pertsona bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako ekintzak eskainiz.

INSTALAZIOAK

Zentroak egunero janaria prestatzeko sukaldea, komun geriatrikoa eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokitutako komunak ditu. Halaber profesionalentzako bulego bat, aldagela, biltegia, garbiketa eta lisaketa gela eta erabilera anitzeko gela bat ere izango du, azkeneko honetan jantokia kokatuko da.

PRESTAZIOAK

- Jantoki zerbitzua
- Garbitoki eta lisaketa zerbitzua
- Komun geriatrikoa
- Eguneroko bizitzako jardunerako laguntza
- Zahartze osasuntsuaren sustapen zerbitzua
- Familientzako laguntza zerbitzua
- Garraio zerbitzua

NORI ZUZENDUA?

Oibarren edo eskualdeko herriren batean erroldutako, 60 urte baino gehiagoko edota erretiratu edo pentsionista direnei zuzendua. Autonomia edo dependentzia arina eta hemen azaltzen diren egoeren bat bizi dutenentzat zuzenduta.

- Bakarrik edo senideekin bizi eta zainketan eta laguntasun funtzioetan babes osagarri bat behar duten pertsonak.
- Eguneroko oinarrizko jardunak aurrera eramateko zailtasunak dituztenak (janaria prestatu, janzteko, botikak hartzeko, bere burua garbitzeko...).
- Bere harremanak, gizarte parte-hartzea, integrazioa eta gaitasunak mantendu eta hobetzeko laguntza behar dutenak.



BALDINTZAK

- 60 urte edo gehiago izatea edota erretiratu egotea edo pentsioduna izatea.
- Oibarren erroldatua egotea edo alde zuzenetik Oibarko udalarekin hitzarmenak sinatu dituzten eskualdeko udaletan erroldatuta egotea.
- Dependentzia larririk ezta handirik onartuta ez izatea, 39/2006 legeak, norberaren autonomia sustatzeko eta mendetasunari arreta emateko ezartzen duenaren arabera.

ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIA

Zentrua egun guztiak irekita mantenduko da asteburuak eta jaiegunak izan ezik, eta abuztuaren 15ean eta 16ean izan ezik. Halaber, abenduaren 24 eta 31an zentrua irekita egongo da, soilik bazkalon-doraino.

Zentruko ordutegi publikoa 11:00etatik 18:00ak arte izango da.


BALDINTZA EKONOMIKOAK

Zerbitzu hau erabiltzeko ordaindu beharreko prezioa EALZ-aren Ordenantza Fiskal Erregulatzailerak ezartzen dituen prezioak izango dira, Oibarko Udalak sortu eta onarturiko ordenantza hain zuzen. Zerbitzuaren amaierako kostua erabiltzailearen diru sarreraren arabera izango da. Dena den, erabiltzaileak gutxienez 30 euro eta gehienez 220 euro ordaindu beharko ditu.

INFORMAZIOA ETA ESKAERAK:

OIBARKO UDALA
Telefono 948 877 005
ZANGOZAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
Telefono 948 430 436

HELBIDEA:
OIBARKO EGUNEKO
ARRETARAKO LANDA ZENTROA
Pintor Crispin Kalea, 3 - 31460 OIBAR (Nafarroa)
Astelehenetik ostiralera 11:00etatik 18:00etara



Ayuntamiento de Aibar
Oibarko Udala

CENTRO RURAL DE ATENCIÓN DIURNA DE AIBAR

para personas mayores